

VILLA NERIENEA
D MAILA**ALDAPETA 78**

Frantzisko Urkola, 1923.

Deskribapena

Ilaran antolatutako etxebizitza-multzo interesgarria, eraikinean eta lorategian mehelinak partekatzen dituen tipologiari jarraikiz altxatua. Urkolak mota honetako beste bi lan egin zituen hurbileko La Fe pasealekuan, alde nagusi bakarra dutela fatxada-lerro jarraitua antolatzea, bai espaloian bertan bai lorategi bitartez atzeraemanda. Etxebizitzak mailaz maila egokitzen zaizkio maldari; horretarako, murrua mentsula gainean aurreratzen da, hain zuzen ere lehen solairuko hegala egiten duen moduan. Eraikitzeke modu hori murruz bereizitako kaleko baserrietatik iritsi zen estilo neoeuskaldunera. Ilararen goreneko muturra estalkiaren orientazioagatik bereizten da aurrekoetatik, eta fatxadako plano aurreratua edukitzeagatik. Oraingoan, fatxadak horma pikoa dauka, eta oso bereizketa argia dago beheko solairuaren eta lehenaren artean; aldameneko etxeetako teilatu-hegaletatik gora, teilatupeko bao bat nabarmentzen da. Fatxada aurreratu egiten da murre hegaldunen planoan, eta ertzean terraza estali bat dauka, pilastra eta entablamentuzko apaindura batez. Horrela, La Cumbreko goiko partzelarantz begira dago etxea. Etxe honen ezaugarri nagusietako bat da, era berean, beheko solairuan harri horma erabiltzea eta hiru arku erdizirkular edukitzea. Harritzko basamentu horrek modilo gainera inposta bat du erremate, eta goiko solairuetan emokatuak ematen dio estaldura.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadako harri horma eta apaindurako erliebeak, teilatu-hegaletako habeak eta zuburuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.